

Azkoitiko Udalak eta Gipuzkoako Urak-ek Rikardo Otaño, Ama Josefa eta Jose Eginok kaleetan elkarlanean gauzatuko dituzten obrak gaur hasi dira eta aurreikuspenen arabera, azaroaren erdia baino lehen amaituta izango dira, hamar asteko iraupena izango baitute. Udala eta ur erakundearen ordezkariak uztailan bildu ziren bizilagunekin lanen inguruko plangintza aurkezteko eta haien proposamenak jasotzeko, aurretik Inazio Iriartekoekin egin bezala.

Gipuzkoako Urak-en gidaritzapean egingo diren esku-hartze nagusiak bi dira. Batetik, ur hoditeria berrituko da 467 metro linean berri jarri hornikuntza eta saneamendu sareetan. Halaber, euri-urentzat beste 228 metro aldatuko dira.

Helburu nagusia da hondakin-uren eta euri-uren sareak banatzea. Berriztatze lanekin lortuko da ur ihesak saihestea, aberiak murriztea, ur emaria eta presioa bermatzea edota usain txarrak desagerraraztea.

Bestalde, bebarruren bateko etxejabeek eraikin barruko hoditeria berritu nahiko balute, hauxe litzateke momenturik egokiena. Guztira sei bebarru daude eta zangak irekitzen hasten direnean, bakoitzak dituen ur-harguneen egoera aztertuko da. Gipuzkoako Urak-en arduradunak etxejabeekin harremanetan jarriko dira harguneak nola dituzten azaltzeko eta hartu beharreko neurriak hartzeko aukera izan dezaten.

Halaber, obrak aprobetxatuko dira espaloiak berritzeko. Zati bat berritu zen arren, beharrezkoa da berriro ere txukuntzea egungo egoera hobetzeko.

Lanen aurrekontua 145.943 eurokoa da (BEZa kanpo).

Lanek irauten duten bitartean ezinbestekoa izango da tarteka trafiko aldaketak edo mozketak gertatzea, nahiz eta ahalik eta gutxien luzatzen saiatuko diren.